INDUSTRIA INGENIARIA TEKNIKOAREN KODE DEONTOLOGIKOA ETA PROFESIONAL JARDUKETARENA

009ko uztailaren 4ko Ohiko Batzarrean onartua

INDUSTRIA INGENIARIA TEKNIKOAREN KODE DEONTOLOGIKOA ETA PROFESIONAL JARDUKETARENA

AURKIBIDEA

HITZAURREA…….3

I .KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK…….4

1.Artikulua.- Araudi aplikagarria……4

2.Artikulua.- Industria Ingeniari Tekniko eta Perituen Kontseilu Orokorreko Elkargo Ofizialen funtsezko helburuak, Autonomi Kontseilu eta Industria Ingeniari Teknikoena materia deontologikoan…….5

3.Artikulua.- Lanbidean aritzeko ezintasuna…….6

4.Artikulua.- Bateraezintasuna lanbidean aritzeko……6

5.Artikulua.- Lanbidearen duintasuna……8

6.Artikulua.- Jarduera profesionalaren modalitateak……..9

7.Artikulua.- Jardun profesionala……9

II .KAPITULUA……10

DEBEKUAK, BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

8.Artikulua.- Debekuak……10

9.Artilulua.- Profesionalaren betebeharrak……..10

10.Artikulua.- Enkargu profesionalen irismena……..12

11.Artikulua.- Adituen laguntza Justiziaren Administrazioari……13

III .KAPITULUA – FORMAKUNTZA……14

12.Artikulua.- Jarduera profesionalerako prestakuntza eskakizun bezala……14

IV .KAPITULUA – BEZEROEKIN HARREMANAK……..14

13.Artikulua.- Profesionalaren askatasuna eta independentzia……..14

14.Artikulua.- Bezeroari informazioa……..15

15.Artikulua.- Profesionalaren eskubidea enkargu bat onartzea edo ez……..16

16.Artikulua.- Profesionalaren betebeharrak beste elkargokideekiko……..17

VI .KAPITULUA – PROFESIONAL ALKADETA……17

17.Artikulua.- Bezeroaren eskubidea profesionala aldatzea……17

18.Artikulua.- Profesional berriaren betebeharrak……..18

19.Artikulua.- Aurreko profesionalaren betebeharrak……..18

20.Artikulua.- Ordaindu gabeko ordainsariak……19

VII .KAPITULUA – SEKRETU PROFESIONALA……19

21.Artikulua.- Izaera……..19

22.Artikulua.-Esparru objektibo, subjektiboa eta denborazkoa……19

23.Artikulua.- Altxatzea……20

24.Artikulua.- Elkargoaren babesa……..21

IX .KAPITULUA – ORDAINSARIAK……21

25.Artikulua.- Profesionalaren eskubidea ordainsarietara……..21

26.Artikulua.- Ordainsariak finkatzeko askatasuna……21

27.Artikulua.- Aurrekontua……22

HITZAURREA

Industria Ingeniari Tekniko lanbidearen funtzio sozialak deontologi arau ezartze bat exijitzen du bere profesionalen jokabidearen exijentzia etikoak garbi definitzeko eta jokaera ezegokiak saihesteko**.**

Lanbidearen berezko jarduerak jakimen zientifikoak eta teknikoak, eskarmentua eta zentzu praktikoa, ondasun publiko naiz pribatuaren zerbitzuan.

Profesional ardura eta jokaera printzipio deontologikoak bizitza profesionalerako eredu izan behar dute, bere jarduera bete behar den funtzio sozialarekin lotuaz, gizarte-aurrerabidearentzat baldintzak bultzatuz, gizarteari zerbitzu hobeago bat emanez.

I .KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1.Artikulua.- Araudi aplikagarria

Deontologi profesional honen kodea lanbidearen edozein modalitate jardueran erabili ahal izango da, erabileraren kalterik gabe, dagokionean, elkargokideen araudiarenak, automatikoarena, oinarrizko estatuko araudiarena eta araudi komunitarioarena**.**

Kode honetan aurreikusitakoa, ezarri ahal izango da Estatutu Orokorretako 54.artikuluko eskumenen esparrura moldatu ondoren.

2.Artikulua.- Industria Ingeniari Tekniko eta Perituen Kontseilu Orokorreko Elkargo Ofizialen funtsezko helburuak, Autonomi Kontseilu eta Industria Ingeniari Teknikoena materia deontologikoan.

Industria Tekniko Ingeniari eta Peritu Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorrak, Autonomia Kontseiluak eta Industria Ingeniari Tekniko Elkargoak arlo deontologikoan funtsezko helburu bezala honako hauek dituzte:

-Lanbidearen jarduera zuzena zaintzea, ordenatzea eta sustatzea gizartearen interesarekin bat, araudi ezartzaile eta eskumen leial eta askearena, lan profesionalen kalitatea bermatzeko arauak eta irizpideak ezarriz.

-Elkargokideen betebeharren eta eskubideen berdintasuna ziurtatzea eta beraien arteko lankidetza eta elkartasuna handitzen saiatzea.

-Industria Ingeniari Tekniko bakoitzaren jarduera askea bermatzea bere lanbide jarduera profesionalean, edozein modalitatetan, irizpide-independentzia osoarekin bere jarduera garapena zaindu ahal dezan.

-Gizartearen interesarekin bat industria ingeniari tekniko profesionalen jarduera zuzena zaintzea eta beraien interes profesionalak defendatzea.

3.Artikulua.- Lanbidean aritzeko ezintasuna.

1. Lanbide jardunean egoteko ezgaitasunak inguruabar hauek ezartzen dute:

Gaikuntza kentzea ebazpen judizial eta administrazio betearazlearen ondorioz.

Gaikuntza kentzearen elkargo diziplina zehazpenak edo eten profesional exekutiboarena.

Judizialki aitortutako ez gaitasuna.

1. Ardura judiziala iraungitzen denean ez gaitasuna desagertuko da, administratiboa edo elkargo diziplinakoa edo ezgaitasunean ezeztatutakoa.

4.Artikulua.- Bateraezintasuna lanbidean aritzeko.

1. Lanbidearen jarduera ordenamendu juridikoak jasaten duenera ezarrita dago.

2. Legezko bateraezintasun batez eraginda dagoen profesionalak profesional Elkargoari jakinarazi behar dio hamabost eguneko epe batean formalki jakin ondoren, bere jarduera profesionala eten beharra kaltetu gabe legeek ezarritako kasuan.

3. Elkargokide zehatz baten gain eragina eduki dezaketen bateraezintasunak elkartuta egon daiteken laguntzaileengana eta beste profesionalengana berdin zabaldu daitezke.

4. Ulertzen da bateraezintasun egoera bat dagoela, naiz eta legalki ezarrita egon, profesionalaren jarduera independentzian kalte eragina duten eskubide edo interes arteko kasu guzietan.

Aintzat hartuko dira kasu honetan hurrengo jarduketak:

a) Edozein interes ekonomiko, pertsonal edo familiako artatzea, bezeroaren interes eta kalte egin diezaioken eraginetatik kanpo.

b) Bateraezina sortu aurretik hasitako lanak jarraitzea.

c) Lotura duen beste profesionalei gomendatzea, jarduera profesional bateraezintasun edo eten egoeran izatean ezin duelako lanak sinatzeko, edo eskuordetzeko ekonomiko, familiako edo adiskidetasun arrazoiengatik, Administrazio Publikoarekin lotura edo funtzionario bezala abantaila egoera nagusituaz.

d) Beste profesionalekin edo betebehar profesionalak zorrotz betetzeko konpromisoa duten enpresekin edozein motatako elkartze-egoerak edo lankidetza estaliak mantentzea.

e) Obra-zuzendaritza eta bezeroaren eskubide edo interes egoeratan arbitroarenak diren eginkizunak metatzea.

f) Ebazpen izaera edo kontrol eginkizunak aurrera eramatea, berezko interesa edo berarekin odolkidetasunean laugarren gradu batean erlazionatuta dauden pertsonen kasuetan, bat badatoz bigarren maila batetan edo bizikidetza eta afektibitate harreman antzekotan.

g) Konkurtso baten Epai mahaiko kide izaera badauka edo eduki balu edo oinarrien idazkeran parte hartu, bertara joan, edo egin pertsona horiei, artikulu honetako 3 eta 4 puntuekin ados, abstentzio edo bateraezintasun erlazioa zabaldu dezala. Inolaz ere ezingo da onartu inongo enkargurik, bere epaimahai kide izan den konkurtso batekin.

h) Artikulu honetako haserako paragrafoak dioenez beste edozein egoera zehazten duena eskubide eta interesen arteko lotura balego.

5.Artikulua.- Lanbidearen duintasuna.

Profesionalak eskubidea du:

a) Lanbideari dagokion gogoeta guztiei.
b) Industria Ingeniaritza Tekniko eta Peritu Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorren aldetik, Kontseilu Autonomikoen eta Industria Ingeniaritza Teknikoen Elkargoen bidezko interes profesionalen defentsaren babesera.
c) Bere lanen aintzatespenera eta, intelektual eta industria propietate babesera.
d) Ordenamendu juridiko edo estatukoak aintzatespen dituen beste eskubidetara.

6.Artikulua.- Jarduera profesionalaren modalitateak.

Profesionalak jardun dezake:

Profesional aske bezala, independente bezala edo bateraezintasunik izan ez duen beste profesional batzuekin elkartuta, ordenamendu juridikoak ezartzen duenarekin ados.

Enpresetako edo beste profesional baten edo batzuen soldatapeko profesional bezala.

Edozein Administrazio Publikoko funtzionario edo kontratatutako langile bezala.

Jarduera elkarte profesional baten bitartez, ardura pertsonal, zibil eta berezko elkarte baten mailatan, kode honetan eta elkargoko estatutuetan ezarritako araudien arabera.

7.Artikulua.- Jardun profesionala.

Profesionalak bere lana askatasunez eta independentzi irizpidez egingo du, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa jarraituz, gaitasun profesional osoz jardunaz eta profesional enkarguei arituaz, eta behar den bezala artatu ezin dituzten lanak onartu gabe.

II .KAPITULUA

DEBEKUAK, BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

8.Artikulua.- Debekuak

Profesionalek debekatuta daukate:

1. Lana bilatzea eskumen eskumenen eta desleial eskumenen defentsa arauak hautsiz.
2. Jarduera profesionalaren ezagupena dutenen sekretuak ezagutaraztea, ezarritako araudiak behartzen ez badu.
3. Pertsonalki mailaz igotzea eskumen edo eskumen desleial defentsa legeria hausten badu.
4. Beste profesional batzuen betebehar eta arauen aurkako jokaera batzuk ezkutatzea bere jarduera eta sinadurarekin eta baita ere beste teknikari, enpresa, enpresario autonomoek edo edozein partikularrek eginiko bidegabekeria.
5. Proiektu bereko alderdi bat aholkatzea, proiektu horretako alderdi ezberdinen artean interes gatazka badago edo sekretu profesionalaren arau haustea badago edo independentzia profesionalarekiko arriskua badago.
6. Bere aitzindari diren bezeroei kalte egin dezaketen enkarguak onartzea edo interes gatazka bat sortu dezaketenak. Bereziki, onartu dezake, pasatako denbora kontutan izanik edo enkargu motagatik, enkargu aitzindaria egiterakoan jasotako informazioari erabilera desegokia ematea posible ez denean.

7. Enkarguak onartzea beste partaide bat gatazkan edo beste peritu edo industria ingeniari tekniko batek aipatutako enkarguari buruz kontsultaren bat egin badu, horren bitartez informazioren bat jaso badu bere independentzia arriskuan jarri ahal izanez.
8. Enkargu bat onartzea sortzen duen interesa ezin denean bermatu nahiko denbora ez edukitzeagatik, edo eta nahiko ezagutza exekutatzeko.
9. Aurreko debekuak baita ere dagokion profesionalaren bazkideengana eta lanbideko laguntzaileengana zabaltzen dira.

9.Artilulua.- Profesionalaren betebeharrak.

a) Profesional betebehar guziekin betetzea eta elkargoko Estatutuek, deontologia arauak eta beste arau autonomikoek edo estatalak ezarritakoak, eta organo korporatiboak onartutako akordioak.

b) Idatziz bere Elkargoari jakinarazteko edozein bidegabekeri gertaera edo jarduketa profesional irregular dakiena.

c) Beste industria ingeniari teknikoak errespetatzea eta beraiei laguntzea, eta ez-zilegi lehia ekintzak saihestea.

d) Elkargoari jakinaraztea edozein helbide aldaketa eta elkargo estutuak ezartzen dituzten beste edozein aldaketa, baita ere edozein lotura administrazioarekin naiz hautapenezko kargutan edo funtzionario bezala, edozein modu juridikoan kontratatuz naiz bakarkako mailan edo partaide den elkarte baten bidez.

e) Partaide den bere Elkargo Profesional, Junta eta Komisioetako Batzar eta Junta Nagusietara joatea, eta Elkargoa ordezkatzea, organismo, epaimahai, epai eta besteetan, kargua hartu ondoren beharrezkoa ez bada.

f) Ordaintzea, seinalatutako epeetan, kuotak eta beste elkargokide ordainketa batzuk, baita ere bisatuak eta kontratatutako beste elkargo zerbitzu denak.

g) Profesionalak gutxienez ondorengo aurreikuspen sozial erregimen batera atxikita egon beharra dauka: elkargo aseguru mutualista erregimenera, Industria Ingeniari Tekniko eta Peritu Mutua (MUPITI) bitartez, edo Gizarte Segurantzara, bai erregimen orokor modalitatean edo bai autonomo modalitatean.

h) Erantzukizun zibil profesional asegurua edukitzea lanbideko jarduerako arriskuak modu egokian babesteko.

10.Artikulua.- Enkargu profesionalen irismena

Profesional batek ere ez du onartuko jarduera profesional baldintzetara egokitzen ez den enkargurik.

Enkargu bat onartzeko momentuan profesionalak bezeroarekin enkargu orri bat harpidetuko du, non enkarguaren edukiera barneratuko duen ahal den modu esplizitu batetan, aurreikusitako bete behar dituen kudeaketekin batera, gutxi beherako iraupena, ordainsariak eta aurre ikus daitezken gastuak, eta baita ere ordainketarako adostutako modua eta denbora. Enkargu orrian partaideak dagokien Elkargoaren eraginpean egon daitezke, sortu daitezken eragozpenak argitzeko.

Enkargua amaitu ondoren, profesionalak bezeroarengandik jasotako kontuko ordainketen edo funtsaren horniduren likidaziora jardungo du.

11.Artikulua.- Adituen laguntza Justiziaren Administrazioari.

1. Peritu laguntza, Justizia Administrazioak duen zerbitzu bat da eta zuzenki izendatutako industria ingeniari teknikoak egingo dute Epaitegi edo dagokien elkargo profesional bitartez, behar den bezala formatuak egongo dira, behar duten eskarmentua edukiko dute eta dagokien zerrendetan egongo dira.

2. Profesionalak Administraziotik jasotzeko eskubidea edukiko dute, peritu laguntza zerbitzuaren funtzionamendu zuzenaren azken arduradun bezala, ordainsari egoki bat eta nahikoa, baita ere profesional enkarguak sortutako gastuak itzultzeko.

3. Hori dena ezarri daiteken legeria auziaren barruan.

III .KAPITULUA – FORMAKUNTZA

12.Artikulua.- Jarduera profesionalerako prestakuntza eskakizun bezala.

Profesionalak bere bizitza profesional osoan prestakuntza egokia eta eguneratua edukitze beharra dauka, garatzen duen jarduera profesional zehatzaren euskarri izanez.

IV .KAPITULUA – BEZEROEKIN HARREMANAK

13.Artikulua.- Profesionalaren askatasuna eta independentzia.

1. Independentziak profesionalaren jarduera orientatu behar du denbora guzian, horregatik, konpromisoan jarri diezaioken edozein enkargu ez du onartu behar. Gainera bezeroari pertsonal, famili, ekonomi edo adiskidetasun egoeraz informatu behar dio, hirugarrenekin lotu eta jardueran eragina edukitzeko arriskua dagoelako.

2. Profesionalak askatasun osoa dauka nahi dituen baliabide teknikoak erabiltzeko, beti legalak izanez gero.

3. Bezeroarekin erlazio iraunkor bat duen profesionalak, bai lanekoa edo ez, beste profesionalen eskubide eta betebehar berdinak ditu, eta bere jarduera berdin arautzen da, hau da, askatasun eta independentzia printzipioekin.

14.Artikulua.- Bezeroari informazioa.

Profesionalak bere bezeroen bidezko interesak babestu behar ditu.

Industria ingeniari teknikoak bezeroari ondorengo egoeretan jakinarazi beharra dauka:

a) Industria ingeniariaren elkargokide kudeaketa eta elkargokide zenbakiaz.
b) Bere ondorioen emaitzaz, ondorio horien emaitza ez bada ezin du horien hitza eman.
c) Bere jardueraren ikusi daiteken kostua, gastuak eta ordainsariak barneratuz.
d) Egindako jarduerak eta lortzen doazen emaitzak.

Aldi berean, profesionalak eskubide dauka aldarrikatzeko bezeroari enkarguaren lorpen hoberenarena lortzeko, behar den informazio guzia. Industria ingeniari teknikoak konfidentzialtasun bat mantendu beharra dauka bezeroak emandako informazioarekiko.

Ez profesionala ezta profesionalaren Elkargoa, ez dira inolaz ere arduradun izango, bezeroak emandako informazioaren ondorioak ez badira egiak.

Inolaz ere profesionalak ezingo du bezeroak emandako informazio edo agiririk gorde, honek zor dituen kantitateak kobratzeko.

Industria ingeniari tekniko profesionalak ezingo du bezeroaren izenean eskubideei uko egin edo betebeharrak onartu bere baimen espresik gabe.

15.Artikulua.- Profesionalaren eskubidea enkargu bat onartzea edo ez

1. Profesionalak eskubidea dauka, kodigoan ezarritako eremuekin, enkargu bat onartzekoa. Enkarguari uko egiten ez dion bitartean, bezeroak emandako enkargua bere osotasunean burutuko du.

2. Profesionalak baita ere enkargu bat ez onartzeko eskubidea dauka, arrazoiak eman gabe, adituen laguntzak ezarritakoa kaltetu gabe.

3. Baita ere, profesionalak uko egiteko eskubidea dauka, edozein momentutan, burutzen ari den enkarguren bati. Kasu honetan, profesionalak bezeroaren interesak osoki babestu behar ditu. Ondorio hauekin, ondorengo neurriak hartu behar ditu:

   a) Uko egin duenaren adierazpena bezeroari jakinaraziko dio jasoko duela ziurtatzen duen moduan, bezeroak beste profesional bat lortu dezan.

   b) Bezeroak inolako kalterik ez ditzan jasan edozer egingo du.

   c) Bezeroari behar den informazio guzia emango dio eta enkarguaren gain dagoen profesional berriari baita, eta baita ere denbora motzera egin behar diren jarduerei buruz.

16.Artikulua.- Profesionalaren betebeharrak beste elkargokideekiko.

Beste elkargokideekin dituen harremanetan, profesionalak ondorengo betebeharrak bete behar ditu:

a) Bere bulegoan hartzen duen elkargokidea, ahal den azkarren izatea.
b) Beste elkargokideen idatzi eta deiak ahal den azkarren artatzea.
c) Beste elkargokideekiko errespetu eta kontsiderazioa edukitzea, edozein aipamen pertsonal saihestuz, naiz publiko edo pribatuz.
d) Beste elkargokideekin edukitako elkarrizketa eta bilerak ez grabatzea ezta erreproduzitzea beraien baimenik gabe. Baimen honek ez barneratzen grabaketaren edukieraren dibulgatzeko eskubidea.
e) Beste elkargokide batengandik jasotako informazio konfidentziala ez jakinaraztea.
f) Informazio faltsua ez ematea ezta bezeroak esleitutako erabaki ezberdinak hartzeko ahalmenak barneratzea.

VI .KAPITULUA – PROFESIONAL ALKADETA

17.Artikulua.- Bezeroaren eskubidea profesionala aldatzea.

1. Bezeroak edozein momentutan profesionala aldatzeko eskubidea dauka.

2. Eskubide honen jarduera ezingo da egon inongo baldintzapean, aldez aurretik egindako lanen arabera bezeroak profesionalari ordaindu behar dion kantitateetan eragin txarrik eduki gabe.

18.Artikulua.- Profesional berriaren betebeharrak.

Profesional berriak ondorengo betebeharrak bete beharko ditu:

a) Profesional aitzindariari jakinaraztea, idatziz eta komunikazioa jaso duela ziurtatuz, bezeroaren erabakia profesionala aldatzekoa eta informazioa eskatzea, hala bada kasua, ordaintzeko dituen ordainsariena.
b) Bezeroari informatzea profesional aitzindariaren eskubideaz momentu horretaraino egindako lanen ordainsaria kobratzeko, beraiengan azken desadostasunik egon ez dezan.

19.Artikulua.- Aurreko profesionalaren betebeharrak.

Profesional berriaren komunikazioa jaso ondoren, aitzindariak ondorengo betebeharrak bete beharko ditu:

a) Profesional berriari jakinaraztea, ahalik eta azkarren, bezeroaren lanak garatzeko dauden datu errebelatzaile guztiez.
b) Kasuari dagozkion agiri guziak profesional berria ematea, ematen diren agiri guzien kopia gordetzeko eskubidearekin. Profesional aitzindariak ezingo du inolaz ere gorde bezeroaren dokumentazioa.
c) Hala gertatzen bada profesional berriari jakinaraztea jasotzeko dituen ordainsariez.

20.Artikulua.- Ordaindu gabeko ordainsariak.

Profesional berriak aitzindariarekin bat egingo du bezeroaren aurrean ordaindu gabe dauden ordainsarien aurrean.

VII .KAPITULUA – SEKRETU PROFESIONALA

21.Artikulua.- Izaera.

1.Sekretu profesionala Industri Ingeniari edo Peritu teknikoaren eskubide eta betebehar bat da eta mugatzen du bezeroen informazio konfidentziala, bezeroaren defentsarakoa eta ezin da errebelatu, kasua agertua izaten denean bakarrik. Sekretua Elkargoko Juntako kide guzietara eta bertako langile guzietara banatzen da.

2.Informazio konfidentzialak kontsideratzen dira, besteen artean, lotuta daudenak:

- Ekipoak, prozesuak, instalazioak, bezero erakundeak, I+D, ingeniari diseinuak, kalkulu prozedurak, larrialdi planak, etab. , honela bezeroak esanda.

- Baita ere bezeroarekiko datu mota guziak, beraien difusioa ez bada izan baimendu, eta bere lanbidearen jardueran jaso bada.

22.Artikulua.-Esparru objektibo, subjektiboa eta denborazkoa.

1.Sekretu profesionalak bezeroarengandik jasotako informazioa babesten du erabilitako bitartekoa edo euskarria kontutan izan gabe.

2.Sekretu profesionala elkargo laguntzaileei zabaldu dezake, eta aldi berean menpeko langileei eta sozietateari.

3.Sekretu profesionalak jarraitu egiten du naiz eta, elkargokide eta bezeroaren arteko erlazioa bukatuagatik.

23.Artikulua.- Altxatzea.

1.Sekretu profesionala ondorengo kasuetan agertu daiteke:

a) Sekretuaren mantenuak ondorio bidegabea eta larria badauka profesionalarekiko edo hirugarren batekiko, Elkargoaren onarpena eta aldez aurreko ezagutza.

b) Profesionalak bezeroaren eta oinordekoen baimen zehatza duenean.

c) Elkargoko jurisdikzio diziplina espedienteetan berezko ekimenaren defentsan edo Elkargoak eskatutako kexaren funtziopean.

3.Aurreko bi kasuetan, sekretua agertzea interesatuta dagoen profesionala Gobernu Batzordeari edo hontara dagoen Batzorde kideari eskatu beharko dio, nork baimena emango duen artikuluan ezarritako baldintza guziak betetzen badira.

24.Artikulua.- Elkargoaren babesa.

1. Profesionala behartuta dago Elkargoaren aurrean salatzea, idatziz, sekretu profesionalaren mantenuak pairatu dezaken edozein asaldadura.

2. Elkargoak zainduko du sekretuaren betebeharra eta bere elkargokideak babestuko ditu betebehar hori mehatxatzen denean, edozein asaldadura egoeran parte hartzea daukalarik.

3. Elkargokide baten sekretu profesionalaren babesean gertakizun judizialek edo polizialek eraginik badute, Dekanoak, edo ordezkatzen duenak, eginbideetara joan beharko da, sekretu profesionalaren babesa zaintzeko.

IX .KAPITULUA – ORDAINSARIAK

25.Artikulua.- Profesionalaren eskubidea ordainsarietara.

Profesionalak eskubidea dauka bere lanagatik ordainsaria jasotzeko eta bere jardueragatik sortutako gastuak itzultzea.

26.Artikulua.- Ordainsariak finkatzeko askatasuna.

1.Profesionalak eta bezeroak libreki adostuko dituzte ordainsariak.

2.Gai honetan sortu daitezken gatazketan Elkargoak egiten duen arbitrajean partaideak partaide izan daitezke. Eskatutako itunik ez badago, ordainsarien kantitatea ezartzeko, arauak, erabilerak, ohiturak, eta kasuren batean merkatuko prezioen batez bestekoa erabiliko dira.

27.Artikulua.- Aurrekontua.

1. Gomendagarria da profesionalak bezeroari idatziz aurrekontu bat aurkeztea, eta behartua egongo da bezeroak eskatzen duenean ematea.

2. Aurrekontuak ordainsarien eta jarduera profesionalaren burutzeak ekartzen dituen gastuen gutxi gora beherako kantitatea barneratu dezake, bere orientagarri eta gutxi gorabeherako ezaugarria azpimarratuz. Kantitate hauen gutxi gora beherakoa ezin bada egin, kalkulatzeko ze ezaugarri erabiltzen diren jakinaraziko da.

2009ko uztailaren 4an Ohiko Batzarrean onartutakoa